

Gizloga 2008 bigarren sari akademikoa

2009/02/03

Pasa den 2009ko urtarrilaren 30ean, Gizloga Mugikortasuna 2008 bigarren lehiaketa akademikoaren sarituak izendatu ziren. Lehiaketa honen bigarren edizioaren helburua, Gizlogak dituen aktibitate arloetan (bidaiari eta merkantzia garraioa, logistika, teknologia, mugikortasuna, akzesibilitatea, e.a.), unibertsitate ikasleak ikerketara animatzea izan da.

Mugikortasunaren, garraioaren eta logistikaren hiri eta enpresa foroak, Gizlogak, lehiaketa honekin bilatzen duena, gai honen inguruan ikasleriaren jakinmina indartu, arloak suposatzen dituen zailtasunen ezagutza zabaldu eta ideia berritzaileak bultzatzea da.

Lehenengo urteko arrakasta ondoren, non, Mondragon Unibertsitateko ikasleen proiektu eta ideiak jaso ziren, bigarren edizio honetan, aukera hau EHU/UPVko (Gipuzkoako Campusa) eta TECNUNeko ikasleei ere zabaldu zaie.

Lanak aurkezteko orduan, 21 proiektu jaso dira: 12 proiektu MUkoak, 8 EHU/UPVkoak eta TECNUNeko 1. Epaimahaiaren emaitzak, ondokoak izan dira:

MONDRAGON UNIBERTSITATEA:

- **LEHENENGO SARIA:** Donostiako auzo garaietan bizikletaren erabilpena bultzatu.
 - Egileak: Maider Zinkundegi, Mikel de Diego, Igor pariente, Cristina Salgado
- **BIGARREN SARIA:** Bidasoako eskualdeko mugikortasunaren ikerketa.
 - Egileak: Jon Imanol Garmendia, Aitor Garate, Mikel Errazkin, Borja Martínez

TECNUN:

- **LEHENENGO SARIA:** Atotxako autobus eta zerbitzu publikoaren analisia.
 - Egilea: Álvaro Moreno
- **BIGARREN SARIA:** Ez dago.

EHU-UPV:

- **LEHENENGO SARIA:** Errondo eta Amara auzoen arteko ekailera mekanikoak.
 - Egileak: Andrea Polvorosa, Nerea Tejada, Zaida Martín.
- **4 BIGARREN SARI:**
 - Hiriarteko nodoak eta GPSaren aplikazioa Donostian.
 - Egileak: Ladix Caballero, Arantxa Flamarique, Iraitz Larrañaga, Saray Méndez
 - Bakabus: Autobusa eta bizikletaren konpatibilitatea
 - Egileak: Ana Oroz Ugalde, Laura Flores, Tania Samaniego, Miren Telleria
 - Hiri ordainsaria eta semaforo intelijenteak
 - Egileak: Naroa Sagarna, Ioritz Zurutuza, Onintza Lopetegui, Urtzi Enbil
 - Estación intermodal de Tolosa
 - Zuriñe Villa, Leire Caminos, Danel Leunda, Iban Escudero

